

GIG 41

MENDATAKO UR-JAUZIA

BALIO INTRINTSEKOA: **3,75**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,50**KALTEBERATASUN-MAILA: **2**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Haran esekiak Geoparkeko ezaugarri geomorfologiko bitxienetako bat dira, eta bertako itsaslabarren atzera-egite bizkorren adierazgarri agerikoenetako bat ere bai. Azalpen erraza daukate. Itsaslabarrak higatzeko eta atzera egiteko prozesua bizkorragoa denean errekastoen ibilgua higatzekoa eta zultzekoa baino, itsaslabarrak irabazle-edo gertatzen dira, harana esekita gertatzen da, eta errekastoko urak itsasora jauzi egitea beste aukerarik ez duenez, ur-jauzi txiki bat sortzen da.

Mendatako errekastoa 1 km luze ere ez da, eta hark drainatzen duen arroak 65 hektarea inguru ditu. Urte osoan du ura, baina emari handirik ez du izaten normalean, eta higadura-gaitasun txiki samarrekoa da, beraz. Haran eseki honek badu berezitasun bat, alabaina: itsaslabarrak errekastoa bereganatu izanaren ondorioz eratu zela. Aspaldi ez dela, gaur egun ur-jauzia dagoen lekuan itsaslabarrak atzera egin eta errekastoa harrapatu zuen, eta ura amilburu aldera desbideratu zen, NE norabidean 100 metro aurrerago eramaten zuen lehengo ibilgua utzita. Gaur egun, paleoibilgua hori sedimentuz eta landarez estalita dago, baina oraindik ere garbi asko igartzen da inoiz zer bide egiten zuen.

Itsaslabarrak errekastoa bereganatu izanak 22 metroko altuerako ur-jauzi polit bat sortu du, bereziki ezegonkorra den leku batean, gainera, eta itsaslabarreko zartadurak direla tarteko, luizi txikiak ere maiz askotan gertatzen dira.

NOLA BERTARATU

Mendatagainako begiratokiko aparkalekutik oinez 10 minutu inguru ibilita iristen da Mendatako ur-jauzira, eta begiratokira, berriz, Itziarko gainetik joaten da (N-634 errepidean).

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



Mendatako kalaren ikuspegi orokorra. Eskuinaldean paleobailara eta ur jauziaren kokapena ikusi daitezke.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 555438 m / Y= 4793950 m / Alt.= 22 m



Mendatako ur-jauzia eta paleoerrekastoen aintzineko ibilgua.